PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua: 02 - JASANGARRITASUN DEPARTAMENTUA
Atala: 0220 - Ingurumen Administrazioko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 200 - Eragileekiko lankidetza eta ingurumen-sentsibilizazioa
Funtzionala: 170 - Ingurumenaren administrazio orokorra

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Lurraldearen ingurumen-hobekuntza eta 2030 Agendaren garapen jasangarriko helburuen lorpenean aurrera egitea bultzatzea, lurraldeko hainbat eragilerekin lankidetzan eta herritarren sentsibilizazioa eta parte-hartze aktiboa sustatuz, emakumeen eta gizonen berdintasunari laguntzen dioten proiektuen bidez.

Egoeraren diagnostikoa:

Ingurumen hobekuntzarako helburuak, bai mundu mailan, Parisko Akordioarekin eta 2030 Agendarekin erreferente nagusi gisa, bai Gipuzkoako lurralde mailan, zorrotzak dira eta eremu ugari hartzen dituzte.

Gure lurraldean, Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategiak eta Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategiak, erreferentziako plangintza-esparru gisa, 2050erako zenbait jomuga ezartzen dituzte, lurraldeko esparru eta sektore guztietan ingurumen-hobekuntzak lortzera bideratuak.

Testuinguru horretan, esan behar da foru ingurumen-administrazioa irmo ari dela lanean ezarritako helburuak betetzeko, eta horren isla da Garapen Iraunkorreko Helburuen ingurumen-adierazleei buruzko txostenean urtero aztertzen diren ingurumen-adierazleen aurrerapena.

Beharraren deskribapen xehatua:

Lurraldeko ingurumen-administrazioa funtsezkoa da jardueren, administrazio publikoaren eta, oro har, Gipuzkoako gizarte osoaren portaera hobetzeko. Izan ere, indarrean dagoen lege-esparruak EAEko administrazio publikoak eremu horretan trakzio-lana egitera behartzen ditu.

Era berean, beharrezkoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriei eta, oraintsuago, ikastetxeei eta elkarteei garapen iraunkorreko helburuak betetzearen aldeko ekintzan egindako ibilbide luzeari jarraipena ematea eta, ahal bada, indartzea.

Azkenik, ingurumen-organoaren ekintzaren zeharkako elementu gisa, ezinbestekotzat jotzen da gizarte osoa parte hartzea GFAk sustatutako ingurumen-hobekuntzako ekintzan, lurraldeko beste erakunde eta eragile batzuekin sinergiak sortuz eta herritarren zabalkundea, sentsibilizazioa eta inplikazio aktiboa bultzatuz.

Nori zuzendua:

Udalak eta beste administrazio batzuk
Ikastetxeak
Irabazi-asmorik gabeko elkarteak
Herritarrak, oro har
Erakundeak, fundazioak eta sozietateak

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Bitarteko ekonomiko eta giza baliabide propioak.
Kanpoko laguntza teknikoa kontratatzea.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Programa hau, batez ere, bi tresna motaren bidez egituratzen da: lankidetza-hitzarmenak eta dirulaguntzen ildoak (norgehiagoka).
Hitzarmenen kasuan, emandako erantzuna eta emandako zerbitzuak aldatu egiten dira erakundearen

arabera, baina, kasu guztietan, ingurumen-hobekuntzan aurrera egiteko helburu orokorra lortu nahi da, dela erakundeena berarena, dela jarduten duten eremuarena.
Dirulaguntzei dagokienez, gaur egun hiru ildo daude: bat udalei zuzendua, beste bat ikastetxeei eta azkena irabazi asmorik gabeko elkarteei, guztiak 2030 Agendaren garapen jasangarriko helburuekin bat datozenak.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

- Lankidetza-hitzarmenak.
- Udal, ikastetxe eta irabazi asmorik gabeko elkarteentzako dirulaguntzak.
- Akordioak eta beste lankidetza-tresna batzuk eragileekin.
- Mintegiak eta bestelako ekitaldiak.

Programaren arau esparrua:

- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.
- Ingurumen arloko informazioa eskuratzeari, erabakiak hartzean jendeak parte hartzeari eta justiziara iristeari buruzko Hitzarmena Berresteko Tresna (Aarhuseko Hitzarmena).
- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzkoa.
- 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzkoa.
- Gipuzkoako lurraldea klima-aldaketara egokitzeko 2025-2030 Lan Programa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako.
- Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana (2025-2027) Gipuzkoan.

2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Klima aldaketari aurre egiteko trantsizioak bultzatzea lurraldearen karbono aztarna gutxituz, karbonoa xurgatzeko ahalmena handituz, birziklapena indartuz, energia iturrien erabileran aldaketak sustatuz eta energia berriztagarriak bultzatuz.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Emandako laguntzen kopurua.	Kopurua	>=	242,00	28,00	30,00	120,00
Birziklatze tasa (%)	Ehunekoa	>=	52,52	52,52	60,00	60,00
Energia komunitateen kopurua	Kopurua	>=	67,00	67,00	94,00	94,00
Ingurumen Administrazioko Zuzendaritza Nagusiak emandako dirulaguntzen esparruan genero-ikuspegia txertatzen duten proiektuetara bideratutako aurrekontu osoaren gaineko %.	Ehunekoa	>=	70,00	70,00	85,00	85,00
IAOZ-ak antolatutako ikastaro, jardunaldi eta abarretan parte hartzen duten emakumeen eta gizonen ehunekoa, hizlarien guztizkoari dagokionez	Ehunekoa	>=	42,00	42,00	50,00	50,00
IAZO-ak antolatutako	Ehunekoa	>=	60,00	60,00	60,00	60,00

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
ikastaro, jardunaldi eta abarretan parte hartu duten emakumeen eta gizonen ehunekoa, bertaratutakoen guztizkoari dagokionez						

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariotza sustatzea.



% 29,32



% 19,38



% 26,74



% 24,49



% 0,07

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**1.161.540,00**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Ekipoak eta oinarrizko zerbitzuak	41.864,00			2027/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza Bilerak eta topaketak	15.714,00			2027/01/01	2027/12/31	
1.3 Ekintza Dokumentazioa eta prestakuntza	9.034,50			2027/01/01	2027/12/31	
1.4 Ekintza Web ataria eta apps mantentzea eta hobetzea	5.699,70			2027/01/01	2027/12/31	
1.5 Ekintza Ingurumen-legeriari buruzko jardunaldiak eta mintegiak	152.764,50			2027/01/01	2027/12/31	
1.6 Ekintza Udalerrientzako jasangarritasun-dirulaguntzak (GJH).	310.572,50			2027/01/01	2027/12/31	
1.7 Ekintza Ikastetxeentzako jasangarritasun-dirulaguntzak (GJH).	340.572,50			2027/01/01	2027/12/31	
1.8 Ekintza Lankidetzak beste eragile batzuekin (IHOBE-Udalsarea 2030, Udako Ikastaroak Fundazioa-EHUko Jasangarritasun Foroa, Gurutze Gorria, Cristina Enea Fundazioa, Dendatuz Merkataritza Federazioa, Mario Onaindia Fundazioa).	284.506,85			2027/01/01	2027/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
1.9 Ekintza Programaren eragin linguistiko handiko kontratuetan edota dirulaguntzetan hizkunta-klausula berrituak txertatu.	811,45			2027/01/01	2027/12/31	

GENERO BERDINTASUNA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Beharraren deskribapen xehatua:

-Emakumeek gizonek baino kezka handiagoa dute klima-aldaketarekiko (emakumeen %81ek eta gizonen %75ek diote nahiko, oso edo oso kezkatuta daudela) eta, aldi berean, ohiturak aldatzeko jarrera handiagoa dute (emakumeen %75ek eta gizonen % 68k oso prest daude kontsumo-ohiturak aldatzeko, ingurumen-arrazoiengatik).
-Emakumeen ordezkaritza txikiagoa da hitzarmen bidez formalki lankidetzan aritzen diren erakundeetan (%44, hau da, 36 zuzendaritza-posturen, lehendakaritzen, bokalen eta aurreikusitako gainerako erantzukizun-postuen %16).
-Emakume hizlari gutxiago daude Zuzendaritzak antolatutako jardunaldietan (emakumeen %42 eta gizonen %58).
-Emakumeek gizonek baino presentzia handiagoa dute Zuzendaritzak zuzenean edo zeharka antolatutako jardueretan (emakumeen %59 eta gizonen %38 DSFren jardueretan, eta emakumeen % 61 eta gizonen %36 udako ikastaroan).
-Oro har, beharrezkoa da banakatutako datuen bilketa hobetzea eta sistematizatzea.

Berdintasun-agindu nagusiak:

- Klima-aldaketaren eta ingurumenaren arloko tokiko politiketan eta jardueretan genero-ikuspegia txerta dadin sustatzea, emakumeen eta gizonen egoera eta posizio desberdinak kontuan hartuta (Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren 3. eta 19. artikuluak eta 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzkoa).
- Tokiko klima- eta ingurumen-plangintzaren diseinuan, egikaritzean, jarraipenean eta ebaluazioan genero-ikuspegia txerta dadin sustatzea, jarduerak bizitzaren iraunkortasunera, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonengana eta trantsizio justura bideratuz (Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legearen 15. artikulua eta 2025 2030 Lan-programa, Klima Aldaketari egokitzea).
- Klimaren gobernantzak eta herritarrek parte hartzeko prozesuek emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburua txertatuko dutela bermatzea, presentzia orekatua bermatuko dutela bermatzea, emakumeen parte-hartzea ahalbidetuko duten baldintza materialak, denborazkoak, espazialak eta gaikuntzazkoak erraztuko dituztela bermatzea eta mugimendu feministaren eta berdintasuna sustatzen duten erakundeen parte-hartzea bultzatuko dutela bermatzea (Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legearen 4. eta 10. artikuluak).
- Generoaren eta ingurumenaren (edo generoaren eta klima-aldaketaren) arteko harremanari buruzko ikerketak, azterlanak eta ezagutzaren hobekuntza bultzatzea, emakume ikertzaileen parte-hartzea eta lidergoa indartuz eta eskuragarri dagoen informazioaren kalitatea hobetuz (Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legearen 2. eta 53. artikuluak eta Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen 2. artikulua).
- Genero-ikuspegia txertatzea sentsibilizazioko eta ingurumen-hezkuntzako ekintzetan, bai eta sektoreko profesionalen prestakuntzan ere, erantzunkidetasunetik abiatuta gizarte- eta kontsumo-ereduetan aldaketak sustatuz (2/2015 FA, 49. art., emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa).
- Klimari eta ingurumenari lotutako esparru zientifiko, ikertzaile eta profesionaletan emakumeen presentzia, ikusgarritasuna eta aintzatespena bultzatzea (Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legearen 2. eta 53. artikuluak eta Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen 2. artikulua)

Berdintasun-helburuak

Helburuak:

Ekintza lerroak:

Berdintasuna sustatzeko programaren ekintzak

Programaren gainerako ekintzetan, genero-ikuspegia kontuan hartzen da, honako jarduera hauen bidez:

- Berdintasun-irizpideak kontratu, diru-laguntza, laguntza eta/edo hitzarmenetan
- Emakumeen eta gizonen osaera orekatua

Genero-ikuspegiaren integrazio-indizea:	5,50	puntu
Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Programa honetan Zuzendaritzaren webgunea eta hainbat dirulaguntza lerro sartzen dira, batez ere udalei eta ikastetxeei zuzenduak. Lehenengo kasuan, bi hizkuntza ofizialen erabilera orekatua bermatu beharko da, eta udalekiko eta ikastetxeekiko harremanetan, berriz, erakunde horien errealitate soziolinguistikoa hartuko da kontuan, neurri handi batean nagusiki euskaraz lan egiten baitute, betiere pertsona guztien hizkuntza-eskubideak errespetatuz.

Kategoria	Nola
6.- Hizkuntza-klausulak	6.- Hizkuntza-klausulak

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Programa honek bereziki laguntzen die 4. (KALITATEZKO HEZKUNTZA), 9. (INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA) eta 11. (HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK)

Kuantifikazioa: 1.161.540,00 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	4-Kalitatezko hezkuntza Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.	**340.572,50**	
Helburua	4.7 - 2030. urterako, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza aberatsak eta praktikoak eskuratzen dituztela bermatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarrietarako hezkuntzaren, giza eskubideen, genero berdintasunaren, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzearen, mundu mailako hirigintzaren eta aniztasun kulturalaren eta kulturaren garapenerako hezkuntzaren bitartez.	340.572,50	
	Ekintza lerroak		
	Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariotza sustatzea.	340.572,50	
	9-Industria berrikuntza eta azpiegiturak Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.	**225.076,70**	
Helburua	9.c.1 - Nabarmen areagotzea informazioaren eta komunikazioen teknologiarako sarbidea, eta aurrerapen txikieneko herrialdeei Interneterako sarbide unibertsala eta arrazoizkoa emateko ahalegina egitea	41.864,00	
	Ekintza lerroak		
	Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariotza sustatzea.	41.864,00	
Helburua	9.1 - Azpiegitura fidagarriak, jasangarriak, erresilienteak eta kalitatezkoak garatzea, garapen ekonomikoa eta giza ongizatea bultzatzeko, pertsona guztiek irispide eskuragarria eta bidezkoa izan dezaten ahalegin berezia eginez.	183.212,70	
	Ekintza lerroak		
	Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariotza sustatzea.	183.212,70	
	11-Hiri eta komunitate jasangarriak Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.	**310.572,50**	

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
Helburua	11.b - Gizarteratzea, baliabideen erabilera eraginkorra, klima aldaketa arintzea eta hondamendien aurreko erresilientzia sustatzeko politika eta plan integratuak ezartzen dituzten hiri eta giza kokaguneen kopurua nabarmen handitzea, eta, 2015-2030 urteetan hondamendi arriskua gutxitzeko Sendai Esparruarekin bat etorriz, hondamendi arriskuaren kudeaketa integrala praktikan jartzea maila guztietan.	310.572,50	
	Ekintza lerroak		
	Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariotza sustatzea.	310.572,50	
	17-Helburuak lortzeko aliantza Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.	**284.506,85**	
Helburua	17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz.	284.506,85	
	Ekintza lerroak		
	Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariotza sustatzea.	284.506,85	
	18-kultura eta hizkuntza aniztasuna Kultura eta hizkuntza aniztasuna	**811,45**	
Helburua	18.1 - Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa	811,45	
	Ekintza lerroak		
	Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariotza sustatzea.	811,45	
Guztira		**1.161.540,00**	

Programaren aurrekontuaren laburpena / Resumen del Presupuesto del Programa

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2026	2027	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2028	2029	2030	2031 eta hurrengoak/ 2031 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	159.040,00	162.290,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	128.500,00	108.500,00					
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	360.250,00	363.750,00					
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**647.790,00**	**634.540,00**					
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	17.000,00	17.000,00					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	410.000,00	510.000,00					
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	**427.000,00**	**527.000,00**					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	**1.074.790,00**	**1.161.540,00**					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	162.290,00				162.290,00	
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	108.500,00				108.500,00	
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	363.750,00				363.750,00	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**634.540,00**				**634.540,00**	
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	17.000,00				17.000,00	
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	510.000,00				510.000,00	
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	**527.000,00**				**527.000,00**	
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	**1.161.540,00**				**1.161.540,00**	